

Jose Maria Agirre, goitizenez *Xabier Lizardi*, Zarautzen jaio zen 1896. urtean, apirilaren 18an. Bere bizitzaren zertzeladak ematea erraz bezain labur da. Hamar urte bete orduko, Zarauzko itsas ertza utzi eta, sendiarekin batera, Tolosara joan zen bizitzera, aitaren ogibidearen eraginez. Zarautzen eta Tolosan hasitako ikasketak Madrilen osatu zituen. Jose Maria Agirre Egañak legelari ikasketak burutu zituen Madrilen, libre moduan egin zituela (azterketetara agertuz soilik, alegia) uste bada ere.

Ikasketak burutu bezain laster hasi zen Jose Maria Agirre Perot tela metaliko lantegian gerente gisa lanean. Postu horretan jarraituko du bere bizitza osoan. 1923. urtean Frantziska Eizagirrerekin ezkondu zen. Bizitza eroso izan bazuten ekonomiari begiratu gero, ez zen saminaldirik falta izan ezkon-bizitzan. Izan zituzten hainbat seme-alaba jaioberritan hil zitzaizkien.

Bere lanak eraginda, Jose Maria Agirrek sarri bidaiatu zuen. Parisen egon zen. Eta bere gutuneriak jakinarazten duenez, ez zitzaizkion arrotz Espainiako hiriak eta hiriburuak.

Jose M.^a Agirre, *Xabier Lizardi* (1896-1933).





Lizardiren jaiotetxea zegoen kalea Zarautzen.



Harrizko irudia Zarauzko Torre Luzeako parkean.

1933ko martxoaren 12an hil zen Jose Maria Agirre, neumoniak jota. Bere heriotzak dolumin handia sortu zuen Euskal Herri osoan, Jose Maria Agirre, *Xabier Lizardi* poeta handi egina baitzen. Gerente, langile eta poeta handiaren artean, Jose Maria Agirre eta *Xabier Lizardi*-ren artean, izen eta izanaren artean kokatzen da gizon honek bere garaian egin zuen kultur arloko lana.

Kultura eta politika oso lotuta zihozten garai haietan. Primo de Riveraren diktadurapean debekatu egin zuten euskal abertzaletasunaren zabalkundea. Horregatik, Kultura bihurtu zen politika egiteko bide; euskaltzaletasuna baimendurik zegoenez, bide hori aukeratu zuten orduko euskaldunek, aberriaren alde lan egiteko. Orduko erakunde guztien artean, Euskaltzaleak erakundeak itzal

berezia lortu zuen, bera izan zen eta euskal Kulturaren alde lanik sakonenak eta eragingarrienak egin zituen. 1927. urtean Jose Ariztimuñok, *Aitzol-ek*, osaturiko erakundean parte handia hartu zuen Jose Maria Agirrek.

Lizardik Kirikiño Sariaren arauak idatzi eta Argia aldizkarian argitaratu zituen 1929ko azaroaren 10ean.



Euskal egunkari baten aldeko kanpaina eratu zuen eta sutsu idatzi horren alde. Orduan hasi zen Jose Maria Agirre *Xabier Lizardi* goitizena erabiltzen. Aurretik argitaraturiko olerkiak sinatzeko, *Zarautz'tar Sabin* eta *Samaiko zulo* erabili zituen.

Euskararen aldeko lanean dihardu urte horietan. Euskal egunak, jaiak eratzten eta osatzen lan orduetan ikusi zuten gure poeta. Euskal kazetaritza goratzeko, Kirikiño Saria antolatu zuen Euskaltzaleak erakundeak, Lizardiren bultzadari esker.

Kulturatik politikara ere igaro zen Jose Maria Agirre eta 1931. urtean EAJ/PNVko Gipuzkoako Buru Batzarreko idazkari izendatu zuten.

3

Euskaltzaleak
elkartearen
zuzendaritza
(ezkerretik eskuinera)
Eserita: Landaburu,
Barandiaran, B.
Etxegarai eta A.
Apraiz. Zutik
(ezkerretik eskuinera)
ezezaguna, Aitzol,
Arrue, Espartza eta
Anabitarte.



4

Garaiko gizona izan genuen Lizardi, garaiko lanetan eta iskanbiletan murgildua. Sakonak eta indartsuak izan ziren garaiko euskal idazleekin izan zituen hartu-emanak. Jose Ariztimuño, *Aitzol*, izan zuen Lizardik kulturaren lankide eta literaturan gidari. Aitzolek garaiko literaturarako asmoak plazaratu zituen. Euskal Herria eraberritu nahi zuen, eraberritu eta

berpiztu. Ekintza horretarako, poetak nahi zituen gidari, herriaren abangoardia zirelakoan, etorkizunerantzako bidean ameslari izanik, nondik norakoa ikusiko zutelakoan. Lizardik askotan jarraitu zuen Aitzolen aholkua, baina beste batzuetan, berak erakutsi zion bidea. Euskal poema nazionalaren behar izanaz biak zetozen bat.




Nicolas Ormaetxea, Orixe eta Jose M.ª Agirre, Xabier Lizardi.

Adiskidantza min batek lotu zituen Lizardi eta Orixe. Maiz joaten zitzaion hura literaturaz hitz egitera. Orixe bultzatu zuen euskal kontzeptismoa, esamolde labur eta mamitsua. Berak teorizatu zuen hitzen laburduraz eta Lizardik esku trebez eraman zuen hark irakatsia olerkietara.

Lauaxetaren lana irakurri, goratu eta aztertu zuen Lizardik. Inoiz, aholku zintzoa ere eman zion, estetika berri eta berrizaleen bidean.

Laurek talde irmoa osatu zuten eta lauren artean lortu zuten euskal poesiaren eta literaturaren loraldi berria.



Zarauzko hondartza euskal kostaldeko luzeenetakoa da. Bi kilometroko luzeera du eta turismoaren hazkundean erabateko garrantzia izan du.



Euskaltzaleak elkarteak hil ondorengo omenaldia egin zion Xabier Lizardiri 1934an.


Aitzolek dioen bezala, ez zen Lizardi bat-bateko fruitu, astiro umatua baizik. Koldo Mitxelenak, euskal poeta gailen izendatu zuenak, izan zituen haren ikasbidea, saio garaia eta aprobada sasoia.

Lizardiren lehendabiziko olerkiak (Samaiko zulok sinatuak oraindik) *Euzko-Deya* aldizkarian ematen dira argitara 1917. urtean. 'Nere lenengo matte-ibilketa' izenburua jartzen dio argia ikusten duen lehenari. Urte berean etorriko dira 'Euzko-mendiya', 'Zelai-urdiña' eta Zarautz'tar Sabinekin izenpetzen duen lehena 'Jaun errukitsuboi'. *Euzko-Deya* aldizkarian duen laguntzarekin jarraitu zuen 1920. urtera arte. Bost urtetako isilaldiaren ondoren, *Lizardi'tar Xabier* sinadura *Argia* aldizkarian aurkituko dugu.

Ahots berria zetorkigun aldizkari berrian. Isilaidia une berezia dela esan dezakegu, bere olerkari sena jaiotzeko garaian. Urte horretarako, poema bakarra onartuko du Lizardik bere olerki

liburu handian, *Biotz Begietan* liburuan, hain zuzen. 1925etik geroztikoeak osatzen dute, ordea, lan gailur honen bihotza eta gunea.

Euzko-Deya-n argitatutako poesia. Oraindik *Zarautz'tar Sabin* ezizena erabiltzen zuen.



Isilune aurrekoak irakurriz gero, batbatean nabarmenduko ditugu ezaugarri bereziak. Erromantikoagoak dira eta hitz jario zaleagoak poeta has berriaren lanak, bere ahotsaren erregistro bila balebil bezala. Borobiltasuna falta zaie, esku trebezia, ideia eta hizkuntzaren arteko lotura estua, gerora Lizardik agertuko dituen birtuteak.



Zarautz, Lizardi bizi zen garaian. Orduetik, nabarmen hazi da hiria.



Batez ere neguko afalondoetan izaten zen euskal aldizkariak irakurtzeko aukera. Argitalpen horiek herri txikietan hirietan baino irakurle gehiago zituzten.




1931n, Tolosan egin zen II. Olerri Eguna irabazi zuen Xabier Lizardik. Aurreko urtean (1930ean) hirugarren geratu zen. Lauaxeta eta Orixeren ondoren.



Literaturaren loraldi garaia izan zen, baina ez arantza bakoa. 1931. urtetik aurrera eztabaida garratza piztu zen olertizaleen artean, Euskal Herrian. Euskaltzaleak taldeak hainbat ekintza eratu zituen euskal Kultura suspertzeko asmoz; horien artean, olerri egunak deiturikoak, lore jokoen antzera moldatutakoak. Egunotako poema lehiaketak euskal poetentzako omenaldiak ziren. Eta lehiaketetara aurkezturiko poema onenekin olerki liburuak plazaratzen zituzten.

1930. urtean, Lauaxetari eman zioten zilarrezko abarra, hau da, irabazlearen ikurra, *Maitale kutuna* deituriko bere poemagatik. Orixek eta Lizardik ere aurkeztu zituzten poemak Errenterian ospatu zen lehiaketa horretara. 1931. urtean eta Tolosan, Emeterio Arreseren omenez eraturiko Olerri Egunean, Lizardi atera zen garaile, *Urte-giroak ene begian* poemarekin.



Estetika berri baten kanpaiak ari ziren jotzen euskal literaturaren lurretan eta eztabaida piztu zen. Poesia berriari zaila izatea eragozten zioten poesia errazaren alde agertu zirenek. Ulertezinak zirela ere gehitu zuten. Poesia ulerkorragoaren, ordurarte erabili izan zenaren alde ere egin zuten erraza nahi zutenek.

Eztabaida mingarria eta mingotsa izan zen, eta luze joko zuena.

Lizardiren joera beti paketsua izan zen. Guztien iritzi desberdinak batzen eta elkar ulertzen saiatu bazen ere, berari ere mingarri egin zitzaion eztabaida.


Lizardik herriaren onerako nahi zuen poesia eta herria berpizteko ahalmena zuela uste zuen:

"El poeta es un hombre providencial en el resurgir y el recobrase de los pueblos. Es, de un modo especial, el taumaturgo de las lenguas populares, de los idiomas incultivados."

(*El poeta*, 1930-VI-5)

Edo beste honetan:

"Es un fenómeno general que se observa en el renacimiento de todas las lenguas. En la vanguardia figuran los poetas."
(*Mistral y los poetas vascos*, 1930-IV-16).



Frédéric Mistralek probentzeraz idatzi zuen. 1904an Nobel Saria irabazi zuen.

Horregatik baino ez bada ere, saiatu zen euskal poesiaren eremuetan ziren talde desberdinei helburu desberdina ematen. Lizardik idazle guztiak ikusten ditu lanean bateratuak:

"Nor bere irizmena zabalagotzea da bearrenik. Gure baratzean, mota guztietako landareak bear ditugu. Ez degu zapuztuarazi bear ez bertsolari mordoltoa, ez olerkari antzekoa, ez eta berrizale biurria." (*Bide berriak? Bide guziak*, 1932-II-21).

Arazoa ikusteko modu honi eutsiz, hiru idazle mota bereiztuko ditu Lizardik, bakoitzari gizartean dituen eginbeharra eta ospea aitortuz. Txirrita da berak bertsozaleentzat jartzen duen

eredua. Txirritazale aitortzen du bere burua, badakielako jakin, bertsolariek eginbehar garrantzitsua dutela herri xehearen aurrean.

Muxika jartzen du idazle erdi eskolatuen eredu. Idazlea eskolatua da, baina publiko zabal batentzat idazten duela konturatuz, Lizardik horren lana gorai patzen du.

Azken eredutzat, Koldobika Jauregi jartzen du Lizardik, gutxiengo batentzat idazten duen poeta lirikoaren eredu. Honek ere bere lana du gizartearen barnean, hizkera eraberritzen dueiako eta mundu berrirako eta jakintzarako prestatzen duelako.

Hirurak maite ditu Lizardik, zeinek bere lana gizartearen heziketan betetzen baitu. Baina, berak begirunea dien bezala, begirune berdina nahi du bere lanarentzat. Lizardik ikusi zuen; literatur lan bat irizpide desberdinen arabera taiutzen dela, baina irizpide bi izaten dira nagusi lana aurrera eramateko orduan: lanaren generoaren arabera aukeratzen dela hizkera eta irakurle ideala gogoan hartuta idazten dela.

Irizpide biok egiten dituzte lanak hain desberdin. Baina, zein bere sailean, denak dira beharrezko kulturaren eraketan.

Koldo Mitxelenaren iritziz, Lizardi dugu euskal poesian olerkaririk gailenena. Xabier Letek idatzi zuenez, Lizardik euskal hizkuntza poetiko sakona itxuratzen jakin zuen. Luis Mari Muxikaren ustetan, teknika berrien bitartez balio berriak ekarri zizkion Lizardik euskal lirikari eta honek burua altxa zezan lanean ihardun zuen.

Lizardik euskal poesiaren baratzean duen postu hori liburu bakar (eta bakan) baten bidez lortu zuen. 1932. urtean, udaren atarian, Bilboko Verdes Atxirikaren etxean, *Biotz Begietan* liburua eman zuen argitara, hil baino urtebete lehenago.

Guztira, 54 poema ezagutzen zaizkio Lizardiri. Horietatik 21 jaso zituen bere *Biotz Begietan* liburuan, eta 14 dira liburu argitaratu ondoren ezagutarazi zituenak.

Aspaldidanik adierazi dute adituek izadia dela Lizardiren olerkietan agertzen den gai nagusia. Begi zoliz jakin zuen Lizardik euskal paisaia ikusi eta adierazten; eta betidanik aitortu zaio bere olerkiari bertute hori.

Lizardik euskal paisaiari buruz idatzitakoen artean, *Urte giroak ene begietan* poema ederra dugu hunkigarriena.

Gurdibide bakan-ibil ertzetan
untza dago oraindik, nagi, loretan.
Or-emenka, lore zimel gañetan,
ingumak ari gozo-miazketan...
mitxeleta gorri, zarpail egoak:
Maitatzeke atsotu diranetakoak.

Biotz Begietan
poema-liburuaren
lehen argitalpena
(1932).





"Asaba zaarren baratza"
Egaña-enean. Hauxe da
amonaren familiak
Zarautzen duen etxea.
Gaur egun Lizardiren bi
arrebak bizi dira bertan.

Baina oraintsu ikusi denez, Lizardiren izadiaren deskripzioa beste gai sakonagoa adierazteko zubi edo metaforatzat hartuta dago. Lizardi ez baita soilik paisaia deskribatzen duen poeta, izadia barreneratu egiten duena baizik. Izadia eta izadiko urte aroen igaroaren bidez, bere denboraren joanarekiko ardura adieraziko digu bertso ezagun hauetan:

Oi zein den ituna
beera bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau!

Izadiaren aurrean jartzen gaituenean beste asmo bat ere badarabil Lizardik. Bizitza eta heriotzaren arteko tinkan jartzen gaitu. Edo, bestela esanda, heriotzaren halabehar eta berpiztearen itxaropenaren aurrean, *Urte giroak ene begian* poemaren amaierak argi uzten digunez:

Ta udazken-arratseko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean!

Heriotzaren gaia nonahi barreiatu agertzen da poemategian. Zuen alaba bakarra hil zitzaionean, *Otartxo utsa* poemaren bidez adierazi zuen hark utziriko samina.



Lizardi emaztearekin, bi semeekin eta amarekin (emaztearen amarekin) Zarauzko Mendilautxon.

Xabiartxoren eriotza poemak ere argi uzten du poetaren sentipen mundua, kasu honetan ere, bere semea hil ondorengo poema baita, Xabierren gomutaz idatzitakoa.

Amona hil zitzaionean, Lizardik *Biotzean min dut* poema lazgarria utzi zigun. Heriotza honek bihotzean utzi zion mina honela adierazi zuen olerkariak:

Biotzean min dut, min etsia
negar ixilla darion mina.

Lizardik bere nahigabea eta tristura oso ezagun egin diren bertso honen bidez adierazi zizkigun:

Ots!
Ots!
bizion oñok ...

Lizardik amonaren zerraldoaren atzetik doan jendearen pausoen soinua adierazten du, isiltasun eta seriotasunaren inpresioa ematen duelarik, lelo entzungarri horretan. Izadia eta heriotzarekiko larridura ez da gai bakarra bere poemategian, nagusia izan arren.

Hiru lau arlo nagusitan banandu dira Lizardik liburu honetan erabilitako gaiak: izadia eta heriotzaz gain, aberria eta euskara hartu zituen olerkigai.

Lizardiri buruzko doktoradutza tesia argitaratu duen Karlos Otegik gai multzo hori aipatzen du Lizardiren arduraren mundua inguratzeko asmoz, Lizardirentzat "ederra baita bizitza", bizitza bera da bere desioaren



Xabier seme
zaharrenarekin
hondartzan.

iturburu. Bizitza nahi luke bere inguruko izaki guztientzat eta desio hori bihurtzen da poemategiaren motor nagusi.

Bizitza nahi du Lizardik bere aberriarentzat:

Nire Tabor mendi: nire
baratz zaarraren antzalda
egi, mami, biur adi:
leenaren muñak alda beza
baratz zaarra, baratz berri!

Eta bizitza ere hizkuntzarentzat, euskararentzat. Eta horrela antzaldatua ikusi nahi du, hiltzear dagoena biziberritu nahi luke, bertsoak dioen moduan:

Baina nik, izkuntza larrekoa, nai
aunat ere noranaikoa: yakite-
egoek igoa; soña zaar, berri
gogoa; azal orizta, muin
betirakoa



Gaztetan lagunekin.

Lauaxetaren *Bide Barriyak* liburua aztertzen duenean ematen digu Lizardik poesia eta poetaren irudia:

"Aconsejaría, amigo mío, que se haga usted todo corazón y ojos y apenas deje a la cabeza aquel cuidado, recomendado ya, de dar unidad y encauce a los elementos aportados por aquéllos (...) esforzarse en alcanzar una expresión cada vez más justa y más densamente vasca (...) si en algo ha de ser superior el verso a la prosa (será) por lo que ayude a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva." (1930-XII-30).

"Bihotz begietan" formula Lizardiren poesiaren zutabea da, beraz. Esaldi horrek adierazten du posible dela kanpo mundu eta barne munduaren arteko lotura, mundu objetibo eta subjektiboaren arteko batasuna. Benetako errealitatea mundu bion arteko kidesunean aurkitzen da eta kidesun hori poesiaren eginbearra da. Lizardiren poesia olerki idealista da, mundua errealitate bitan

(izpiritua/materia) bananduta dagoela uste duena, baina, era berean, poesiak mundu biak batu eta elkartu egiten dituela sinesten duena. Benetako errealitatea olerkian dago, eta olerkiak sortzen du, pertsona idealtasunaren bidean jarriz.

Pakita emazteari bidalitako argazki honetan Lizardiren ezohiko irudia ikus daiteke.





Tolosan bizi zen arren, ahal zuen guztietan Zarautzera joaten zen.

Idea horiek garaiko literaturan nahiko zabalduak ziren. Eta honela sartzen gara Lizardiren influentzien arazo larrira. Orain arte joera bi zeuden. Batzuek influentziak ukatu egiten dituzte; beste batzuek, han hemenka, kanpoko literaturaren arrastoren batzuk ikusi dituzte.

Aitzolek garbiro azaldu zuen:

"Arrotz olertiaren kutsurik, Lizardiren neurtitzetan aurki ezin lezazuke. Barneko iturburutik jaio zaizkio mami-azalak."

Mitxelenak ere honela idatzi zuen:

"Su poesia es tan personal hasta el punto de que resulta difícil señalar influencias en su obra."

Orixe ere iritzi berdineko zen:

"Ezagutu ote zun gizon au (García Lorca) Lizardik? Ez nuke esango."

Ezin da ukatu Lizardi gai izan zela oso era pertsonal eta bere-berean idazteko, idazkera propioa sortu zuela, gerora ere erabilgarria izango zena. Baina kritikak askotan gogoratu duenez: garai bateko kultura agertzen da edozeinen lanean sakon edo azal, era handi edo era txikian, idazle batek berak uste duena baino gehiago adierazi ohi duelako bere lanean.

Lizardiren kokagune literarioak aztertzeko modu bi erabili ohi dira. Lehenengoak bertsoz bertso konparatzen ditu haren olerkiak eta kanpoko idazleenak. Metodo honek antzekotasunak baino gehiago, desberdintasunak uzten ditu agerian. Hala ere, iruditeria klasikoaren eragina nabarmendu da. Eta, txitean pitean, Gustavo Adolfo Bécquer, Juan Ramón Jiménez, Paul Verlaine eta Antonio Machadoren ohiartzunak entzuten dira Lizardiren lanean.

Behin aitortu zuen Lizardik bere *Zeru azpia* poema L. de Besse poeta frantsesaren poema baten arabera sortua dela. L. de Besse, Alfred Besse de Larzes deitzen zen eta bat-bateko bertsoak egiten zituen Frantzian.

Baina, garbi dagoenez Lizardik joera propioa ematen diela jasoriko ohiartzunei, bide honek bere antzutasuna agertuko du.

Bigarren metodoak beste joera bat hartzen du. Konparaketa ez da bertsoetara mugatzen, baizik eta literaturak jartzen dituen arazoan aurrean poetak hartzen dituen jarreretara. Eta Lizardiren jarrerak garai hartan mende hasierako idazleek zutenekin pareka ditzakegu. Adibidez, bihotz begien jarrera poesia egiteko orduan, Ortega y Gasseten filosofian ezaguna da; *Urdinez jantzitako*



Dante Gabriel Rossetti pintorearen *Lore-sortadun emakumea*. Emakume-eredu hori modan jarri zen pinturaren bidez XIX. Mendearen erdialdean.

neskatxa orduko pinturetatik harturiko emakume irudi prerrafaelista dugu; garaiko jarrerak dira hiriaren ukazioa eta landaren goraipamena; Lizardik erabilitako hainbat irudi, garaiko "Musée d'images"-etik hartu dira.



Antonio Machado (1875-1939).

Horrela parekatzen ditu Karlos Otegi Lizardi eta Machado:

"Leyendo los poemas de *Soledades* y, sobre todo, los de *Campos de Castilla* advertimos que existe una notable afinidad entre sus temas, actitudes anímicas."

Har dezagun adibide bat. Behin eta berriro adierazi da Lizardik euskal paisaia hartzen duela poema gaia, Rubén Darioren exotismotik urrunduz. Eta askotan aipatzen da urrunketa hori bere kabuz egin zuela, euskal ariman

zen berezitasuna ulertu zuelako. Bada, exotismotik urruntzea eta sinbologia norberaren izadiko ingurugiroan aurkitzea, Espainiako poesian mende hasieran harturiko erabakiak dira; hain zuzen, eurek ere ez zutelako exotismoa maite, urrun egiten baitzitzaien.

Arazoa horrela ikusita, Lizardiren lanaren eta inguruko giroaren arteko hainbat lotura ikus ditzakegu: herri poesiaren funtzioaz, detaileen garrantziaz eta abar.

Lizardiren lana ez da *Biotz Begietan* liburura mugatzen. Hil ondoren, Aitzolek hark utziriko olerkiak apailatu eta *Umezurtz Olerkiak* liburuan bildurik eman zituen argitara 1934. urtean. Han hemenka argitaraturiko poemekin osaturiko liburua dugu. Maitasunaren gaia agertzen da hemen nagusi eta Lizardiren azken joera poetikoak ezagutzeko balio digu liburuak. *Maitearen apurñoak* izeneko olerkian poema luze baten eskema modukoa eskaintzen du Lizardik. Badirudi, beraz, lirika baino zabalagoa den beste genero batean hasteko asmotan zebilela Lizardi.

Kazetaritzan aritutakoa ere izan genuen gure idazlea eta haren prosa lanarekin *Itz Lauz* liburua argitaratu zen gerra aurrean. Gerora, osatuagoa agertu da plazara *Kazetari Lanak* izenarekin, Lurdes Otaegiren argitalpen lan eder baten ondoren. Antonio Maria Labaien bere adiskideak aitortu zuenez:

"Guziok olerkari aunditzat aitortzen badugu, prosagile bezala ez zala makalagoa esango nuke."

19



20



'Etxe barneko bizia' eta 'Donapaulera yoan-etorria' lanak nabarmentzen dira deskripzioaren sotiltasunagatik.

Antzertia ere landu zuen Lizardik eta hiru lan utzi zizkigun: *Laño ta izar* eta *Bi aizpak* 1932. urtekoak eta *Ezkonduezin zitekeen mutilla* komedia eran taiuturiko antzerki lana.



Lizardiren heriotzaren berri emateko artikuluekin batera, 1933an *Euzkadi*-n argitaratu zen argazkia.